

Sustrai- eta zaintza-sare bat. Oratu zure burmuina.

Ikastetxea eta tokia:

**Santa Teresa ikastetxea,
Vistahermosa, Alacant.**

Data: 2018-2019ko ikasturtea,
gauzatzen.

**Harremanetarako
pertsona:** **Eduardo Barceló.**

**Harremanetarako
datuak:** barcelosala@gmail.com

**Zentroaren testuingurua, hezkuntza-maila
eta ikasleen profila:**

Itunpeko zentro pribatu bat da, eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Batxilergoa, Hezkuntza Berezia eta Integratzaileko Laguntza ematen da. Proiektu eleaniztuna dugun ikastetxe bat gara, gaztelaniaz, valentziarrez eta ingelesez. Pedro Povedaren pedagogian inspiratzen da:

- Pertsonak trebatzeari erantzuten dio, bere gaitasunak garatzeari, eta bizitzan Jainkoa aurkitzeari.
- Aitortzen du norbera berezia eta bakarra dela.
- Hurbiltasunaren pedagogiari eusten dio, afektuaren, aitortzaren, harreraren, estimuluaren eta konpromisoaren bidez adierazten den maitasunean oinarritua.
- Hezkuntza-estilotzat hartzen du komunikazioa, eztabaida eta parte-hartzea.
- Zientziaren ezagutza, fedearen ezagutza eta esperientziarekin batzen ditu.

Esperientziaren azalpen laburra

Zertan zetzan?

Zentroko etapa guztietan egituratutako proiektu bat da. Fisikoki, baratzea Haur Hezkuntzako patioaren barruan dago, helburua baita txiki-txikitatik sentsibilizatzea, baina ikastetxeko beste gune batzuetan ere egiten dira jarduerak.

Ikasturte honetan, 2018-19an, hasi da, baina beste proiektu batzuen zati batzuk aurreko ikasturtean hasi ziren, eta honetara batuz joan dira; besteak beste, beste gai batzuetako ApS proiektuak eta «Amasa tu cerebro» proiektua. Jarduera bakoitzaren iraupena desberdina da; batzuk aste batekoak dira, eta besteak urte osokoak. Oro har, proiektua ziklikoa da; beraz, ikasturte bat hartzen du.

Pentsamendu kritikoa lantzea bultzatzen dugu, irakasgaietako jardueren bidez, gai hauekin lotuta: elikadura osasungarria, adimen emozionala, elikagaiak lortzeko prozesua, baliabideak berrerabiltzea eta birziklatzea, genero-ikuspegia, hezkuntza-komunitate osoa sartzeari, ikasleak, familiak, irakasleak eta AZL barne. Laburbilduz, proiektua bizitzako esfera guztiak ukitzen dituen diziplina askoko espaziotzat proposatzen da.

Zein zen helburua?

- Hiri-baratze bat egitea, nekazaritza ekologikoa, kontsumo arduratsua eta elikadura osasungarria zein erraza den ikusarazteko.
- Konpromisoa eta ekintza erabiltzea giza garapen iraunkorra bultzatzeko, norbere ikuspegitik eta komunitatearenetik.
- Gure planetaren egoera globalaren inguruan hausnartzea, eta frogatzea gure ekintzen eraginaren alde aktibo garelako.
- Hezkuntza-jarduerak kanalizatzea: proiektu bidezko lana, ApS, PSP, PATen helburuak eta PAD, arlo/gai desberdinetako hezkuntza-esperientziak.
- Elkarbizitza Planaren bidez indartzen diren emozioak eta zaintzak lantzea, jokabide-zailtasunak dituzten ikasleekin.
- Ikasleen eta irakasleen integrazioa erraztea zentroko hainbat etapatan.



Esperientziaren azalpen laburra

Zer egin nuen, eta nola?

Proiektu honetan aplikatu genuen metodologiak ezaugarri batzuk ditu: planteatzen ditugun jarduera guztiak diziplina askotakoak direla, nagusiki praktikoak, curriculumeko edukiekin lotutakoak; beraz, eskolako baratzeko jardueran bertan, irakasgai bateko curriculumeko helburu bat ari gara lantzen, PATen helburu bat, genero-ikuspegia, ingurumen-iraunkortasuna, gizarte- eta hezkuntza-alderdiak.

Lankidetzan ikasten dugu, ApS, PSP, proiektu eraldatzaileetan oinarritutako ikaskuntza. Eskolako baratzeari, sukaldaritza-tailerretan eta emozioen kudeaketa dauden zatian, curriculumeko helburuak lantzen dira: elikadura osasungarria, erlaxazioa oratzearen bidez, familia-kohesioa, lankidetzan ikastea.

Zer lortu dut/dugu?

Proiektua duela hilabete gutxi hasi da; beraz, ez daukagu lortutako alderdi eraldatzaile guztien erregistrorik.

Oraingoz, baratzeko zatian, ApS proiektuaren bidez, haur nagusienek nekazaritzari, hazitegiei eta elikadura osasungarriari buruzko jakintzak transmititu dizkiete txikienei.

Sukaldaritza-tailerretan, matematika-arloko curriculumeko helburuak erakutsi dira, baita erlaxazio-teknikak, oratzearen bidez, eta familia-kohesioa ere.

Hezkuntza-komunitatean, kasu batzuetan, jarduerak egiteko moduan paradigma-aldaketa bat ekarri du. Zenbaitetan, prestakuntza eta trebetasun berriak ikastea dakarrenez, bai maila pertsonalean eta bai profesionalean aberastea bultzatu du.



Esperientziaren azalpen laburra

Eskola-egitura
eta -testuinguruko
zein elementu uste
dut izan direla
lorpenak eskuratzeko
bultzada edo
balazta?

Zer ikasi dut
eta zer erronka
agertu dira?

Esperientzia hau
prestatzen eta
gauzatzen lagundu
duten pertsonak
eta erakundeak:



Etapartekeko proiektu bat denez gero, jabetzen gara konplexua dela, eta ezinbestekoa da bereziki klaustroa ere, irakasleak ez diren langileekin batera, jabetzea zer ahalegin eta inplikazio eskatzen duen. Era berean, funtsezkoa izaten ari da InteReden aholkularitza, ikusteko zer proiektu (adibidez, ApS) atera daitezkeen etapa arteko proiektu honetan abiatuta. Testuinguruari dagokionez, aukera handi bat da berdegune zabalak eta baratzerako klima ezin hobea duen ikastetxe bat izatea.

Ikaskuntza moduan, ikusten dugu hazkuntza dela hezkuntza-komunitate osoarentzat, bai pertsonalki eta bai profesionalki. Naturarekin kontaktuan egoteak ekartzen du pertsonaren hainbat esferarekin konektatzea (fisikoa, mentala-emozionala, espirituala...).

Erronka moduan, ikusten dugu inbertsio handia behar duela denboran, ahaleginean eta diruan. Proiektuak dakar administrazioarekin eta hainbat alderdi burokratikoekin kontaktuan egotea, eta, batzuetan, luzeak dira. Gainera, nahiz eta irakasleen zati bat motibatuta dagoen proiektuarekin eta emaitza oso onak lortzen ari den, badago beste talde bat, eta haiek motibatzea, zenbaitetan, erronka izan da.

Koordinazioa Haur-Lehen Hezkuntzako Orientazio Sailak egiten du, ikastetxeko irakasle batzuekin eta InteRedekin batera. Hark erakundeen babesa ematen digu, aldizkako jarduerak lotzeko.

Haur eta Lehen Hezkuntzako orientatzailea da proiektuaren koordinatzailea, Bigarren Hezkuntzako Corputz Hezkuntzako irakaslearekin batera. Ikastetxeko irakasleek hartzen dute parte, jarduerak egiten ari diren etapetan. Ikasleek ere bai: hainbat rol dituzte, bai jarduerak hartzeko, eta ekintzak antolatu eta dinamizatzeko ere.

Esperientziaren azalpen laburra

Laguntzazko/ erreferentziazko baliabideak edo materialak:

Plataforman hainbat baliabide daude, etaparen, gaiaren, adinaren eta abarren arabera sailkatuak, eta horrek erraztu egiten die irakasleei jarduerak prestatzea. Orain arte egin diren jardueretan, integrazioa eta koordinazioa oso ona izan da.

Bi gunetan banatutako baratzea planteatu genuen: lurra eta hidroponia. Izan ere, errealista izanda, mundu guztiak ez du lursail baterako sarbiderik; izan ere, modu bideragarri bat da hidroponiaren eta jardineren bidez egitea, etxean bertan baratze bat sortzeko aukera ematen baitute. Hidroponiarako materialen erabilerak guztiz errespetatuko du ingurumena.

Zorionez, gure eskolak berdeguneak ditu, eta proiektu handi honekin, proposatzen dugu Haur Hezkuntzako gune fisikoan indartzea, datozen ikasturteetan baratzea ikastetxeko beste gune batzuetan banatu ahal izateko, eta, hala, kontrastatzeko nola hazten diren barazki eta ortuari espezieak. Halako zerbait litzateke: inkek balkoietan eraztunez eraztun landatzeko erabiltzen zuten metodologia, frogatu ahal izateko espezieak hobeto egokitzen direla hainbat aldagairen arabera. Oraingoz, Haur Hezkuntzako lursailaz gain, hainbat ikasgelak dituzte hazitegiak ikasgelan eta ikastetxeko terrazetan.

Finantzaketa:

